

6

Etxepare Institutuaren irakurletzak atzerriko unibertsitateetan

Euskararen kanpo zabalkundeari egiten dioten ekarpena eta hizkuntzaren nazioarteko irudian duten eragina

Alexander Aginagalde Lopez

Etxepare Institutuko Euskara eta Kultura teknikaria

a-aginagaldelopez@etxepare.eus

Sarrera-data: 2015-11-03 / Onartze-data: 2015-11-30

Laburpena. Etxepare Euskal Institutua 2010ean sortu zuen Eusko Jaurlaritzak euskara eta euskal kultura nazioartean sustatu eta zabaltzeko helburuarekin. Honen zereginetako bat, atzerriko unibertsitateetan euskara eta euskal kulturako irakurletzak kudeatzea eta hauen sorrera bultzatzea da. Artikulu honetan, 2015ean munduko hogeita hamalau unibertsitateetan hedatzen den Institutuaren ardurapeko irakurle sare hau aztertu eta, hauen bitartez euskararekin harremana duten ikasleen iritziak jaso ditu egileak. Egindako ikerketan oinarrituz, Etxepareren irakurletzek euskararen kanpo zabalkundean eta nazioarteko irudian izan dezaketen eraginaren inguruko hainbat ondorio ere planteatzen ditu. • **Hitz gakoak:** *Etxepare Euskal Institutua, euskararen kanpo zabalkundea, hizkuntzaren irudia, euskara eta euskal kulturako irakurletzak.*

Abstract. The Etxepare Basque Institute was set up in 2010 by the Government of the Basque Autonomous Community (region) to spread and promote the Basque language and Basque culture abroad. One of its tasks is to manage the readers of Basque and Basque culture at universities abroad and to encourage them further. In this paper the author analyses the network of readers spread under the auspices of the Institute in thirty-four universities across the world in 2015, and gathers the views of the students that have come into contact with Basque through them. On the basis of the pieces of research conducted, he also puts forward a number of conclusions on the effect that may be exerted on the international image and external spread of Basque by the Etxepare readers. • **Key words:** *Etxepare Basque Institute, the external spread of Basque, language image, readers of Basque and the Basque culture.*

SARRERA

Ikerlan hau Asmoz fundazioak eta EHUK antolaturiko HIZNET soziolinguistika gradu-ondo amaierako lana edo sakontze egitasmoa da. Etxepare Euskal Institutuak kudeatzen dituen atzerriko unibertsitateetako irakurletzek euskararen kanpo zabalkundean eta nazioarteko irudian eraginik ote duten ikertu nahi izan dut bertan.

Interesgarria iruditu zait unibertsitate sare honen azterketa bat egitea, irakurletzei buruzko informazioa bilduz, batetik, eta nazioarteko ikasleen euskararekiko motibazio eta iritziak jasoz, bestetik. Halere, alor hau ikertzeko egindako hurbilpen bat dela azpimarratu nahiko nuke, esparru honetan egindako lehen ekarpen gisa ulertu beharrekoa.

1. TESTUINGURUA

I

1.1 E.S.E.P. eta Euskararen Agenda Estrategikoa 2013-16

Euskararen Aholku Batzordeak 2012an onartutako Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (E.S.E.P.), ezarri ziren helburu estrategikoak (euskararen jabekuntza, erabilera eta elikadura) lortzeko zehar-lerroen artean euskararen zabalkundea aipatzen da, eta honen barruan kanpo proiektzioa. Hau da E.S.E.Pek honi buruz jasotzen duena:

“Hizkuntzaren irudian eta kultur ekoizpenen prestigioan berebiziko eragina du zabalkundeak(...) Alde batetik, beharrezkotzat ematen da euskararen erakarritasuna lantzea eta era egokian proiektatzea(...). Bestetik, oso komenigarritzat jotzen da euskararen irudiari prestigioa ematea(...)”¹

“Barruko proiektioarekin batera, euskararen eta euskal kulturaren zabalkundea euskararen lurraldeez kanpo ere egitea funtsezkoa da. 2010etik abian da Etxepare Institutua, eta haren helburu nagusia, hain zuzen, euskara eta euskal kultura munduan zehar ezagutaraztea da (...)”²

Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Agenda Estrategikoa 2013-16 dokumentuan ere, euskararen kanpo zabalkundeaz hitz egiten da, 3.13 Kanpo proiektzioa atalean. Zehazki dokumentu honetan hau jasotzen da:

“ (...) Hirugarrenik, nazioarteko esparruan euskararen informazioa eta euskararekiko estimazioa zabaltzen jarraituko dugu, bai Euskal Etxeekin elkarlanean, bai munduko hainbat unibertsitateekin hitzartuta, bai eta hizkuntza eta kulturari buruzko bestelako foro, topagune eta sareetan presentzia aktiboa izanda (...)”

Ikerlan hau Asmoz fundazioak eta EHUK antolaturiko HIZNET soziolinguistika gradu-ondo amaierako lana edo sakontze egitasmoa da. Etxepare Euskal Institutuak kudeatzen dituen atzerriko unibertsitateetako irakurletzek euskararen kanpo zabalkundean eta nazioarteko irudian eraginik ote duten ikertu nahi izan dut bertan.

**Etxepare Euskal
Institutua Eusko
Jaurlaritzaren
entitate publiko
bat da, 2010 urte
amaieran
martxan jarri
zena, euskara eta
euskal kultura
nazioartean
sustatu, zabaldu
eta proiektatzeko
helburuarekin.**

Kanpo proiektzioaren arlo honetan...Etxepare Euskal Institutuak pisu berezia izango du.”³

Atal honetan ezarritako helburuei erreparatzen badiegu, EAETik kanpo euskararen hedapena sustatzeko neurrien artean aipatzen da *“Munduko unibertsitateetan euskara eta euskal kulturako irakurleagoak eta katedrak hedatzea.”*

1.2 Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren entitate publiko bat da, 2010 urte amaieran martxan jarri zena, euskara eta euskal kultura nazioartean sustatu, zabaldu eta proiektatzeko helburuarekin.⁴

Sortze legearen arabera, erakunde honen xedeen artean daude:

- a) “ Euskararen irakaskuntza, ikasketa eta erabilera mundu osoan sustatzea...
- b) Euskal kultura, bere hizkuntza ofizialetako edozeinetan eta zeinahi adierazpen, euskarri, bide eta adierazmoldetan, kanpoan ezagutarazten eta hedatzen laguntzea...
- d) Euskarak nazioartean onespina lor dezan bultzatu eta sustatzea.
- e) Halaber, euskal kulturari buruzko ikerketa sustatzea, bereziki unibertsitate eta goi-mailako ikerketarako erakundeetan.”⁵

Helburu hauei loturik, Etxepare Euskal Institutuak, bere gain hartu zuen ordura arte Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren menpe zeuden nazioarteko unibertsitatetako irakurletzen kudeaketa.



1. IRUDIA: Etxepare Institutuaren logoa

2. IKERKETAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA

I

Ikerketa honen helburua, Etxepare Euskal Institutuaren ardurapeko irakurletzen azterketa egitea eta programa hauen bitartez euskararekin harremana duten ikasleen iritziak ezagutzea da, euskararen kanpo zabalpenean eta hizkuntzaren nazioarteko irudian zein eragin duten ikusteko.

Hau neurtu ahal izateko, azpi-helburu hauek jarri ditut:

a) Etxepare Euskal Institutuak kudeatzen dituen irakurletzen mapa ezagutzea, hauen kokapena, kopurua, ezaugarriak eta bilakaerari dagokionez.

a) Irakurletza hauetan *Euskara eta Euskal Kultura* ikasten dabiltzan ikasleen ideia eta iritziak jasotzea honako gai hauetan:

- Euskara ikasten hasteko motibazioak.
- Ikastaroan hasi aurretik zuten euskararen /euskal kulturaren ezagutza.
- Ikasgaia landu ondoren euskarari buruz duten irudia.
- Etorrizunean euskararekiko dituzten asmoak.
- Irakurletzaz egiten duten balorazioa.

Metodologiari dagokionean ikerketa bi mailatan planteatu dut.

Batetik, irakurletzen datuak bildu ditut. Urtero irakurleek Institutuari aurkezten dizkioten memoria eta ikasturteko fitxak zein irakurleek eman didaten informazioa erabili ditut honetarako.

Honela, irakurletzak zenbat unibertsitateetan eskaintzen diren, *euskara eta euskal kulturak* zein pisu akademiko duen eta munduan zenbat ikasle dabiltzan matrikulaturik aztertu ahal izan dut.

Bestetik, ikasleen datu eta iritziak jasotzeko bi teknika erabili ditut. Lehenik, elkarrizketak burutu nizkien Chile eta Argentinako unibertsitateetako irakurletzetan euskara eta euskal kultura ikasten duten lau ikasleri. 2015eko otsailean Etxepareren bekei esker Zornotzako barnetegian hilabeteko egonaldia burutzen ari zirela aprobetxatu nuen horretarako. Horrela, modu kualitatiboan jaso nituen lehen datuak. *Euskara eta Euskal Kulturako* ikasle hauek aurrez aurre elkarrizketatuz ezagutu ahal izan ditut haien esperientziak, motibazioak, iritziak, eta ideiak.

Bigarrenik, aurreko elkarrizketak abiapuntutzat hartuta, nazioarteko *Euskara eta Euskal Kultura* ikasleentzako internet bidezko inkesta osatu nuen. Galdetegi hauek ikasleei helarazteko, ezinbestekoa izan da Etxepareren irakurleen lankidetzaz, haiek birbidali baitiete euren ikasleei inkestaren linka jasotzen zuen mezua. Modu honetan, unibertsitarioen datu eta iritziak kuantitatiboki jaso ditut.

**Batetik,
irakurletzen
datuak bildu
ditut.**

**Bestetik, ikasleen
datu eta iritziak
jasotzeko bi
teknika erabili
ditut. Lehenik,
elkarrizketak
burutu nizkien
Chile eta
Argentinako
unibertsitateetako
irakurletzetan
euskara eta
euskal kultura
ikasten duten lau
ikasleri. 2015eko
otsailean.**


Euskararen eta euskal kulturaren ezagutza eta prestigioa nazioartean sustatzeko, Etxepare Euskal Institutuaren jarduera nagusietako bat Euskara eta Euskal Kultura irakurletza programa bere gain hartu eta osatzea izan da.

Ikerketan nik nahi baino ikasle gutxiagok parte hartu du (honi buruzko azalpen posibleak *Metodologiari buruzko eranskinean* eman ditut).⁶ Halere, mundu osoan Etxeparek kudeatzen dituen irakurletzetan *Euskara eta Euskal Kultura* ikasten duten unibertsitarioen %12 inguruk erantzun dute inkesta. Laginak zehaztasun zientifikoa ez badu ere, lehen hurbilketa gisa eta atzerriko ikasleen motibazio eta iritzien ideia orokor bat egiteko, eta hortaz, irakurletzek euskararen hedapen eta irudian eraginik ote duten ikusteko, baliagarria dela esango nuke.

3. ETXEPAREREN IRAKURLETZAK ATZERRIKO UNIBERTSITATEETAN

I Euskararen eta euskal kulturaren ezagutza eta prestigioa nazioartean sustatzeko, Etxepare Euskal Institutuaren jarduera nagusietako bat *Euskara eta Euskal Kultura* irakurletza programa bere gain hartu eta osatzea izan da.

Nazioartean 34 unibertsitateetan egon da 2014/15 ikasturtean *Euskara eta Euskal Kultura* ikasteko aukera. Europako 23 unibertsitateetan (horietariko 5 Espainiar Estatuan), Hego Amerikako 6 unibertsitateetan, Ipar Amerikako 4 unibertsitateetan, eta aurtien sortu berri den Tokioko irakurletzari eske, lehen aldiz baita Asiako unibertsitate batean ere.



2. IRUDIA. Etxepareren irakurletza eta katedren mapa. Etxepare Institutuaren eskuorria 2015.

3.1 Irakurletza eta ikasle kopuruen bilakaera

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak kudeatzen zituen irakurletzak, Etxepare Euskal Institutuak 2011n bere gain hartu

eta gaur arte, irakurletza eta ikasle kopuruan izandako bilakaera aztertuko dut orain. Erabiliko ditudan ikasle matrikulatuen azken datu ofizialak 2014koak dira, 2015eko behin betiko datuak ikerketa hau idazterakoan oraindik ere eskuratu ezin izan ditudalako.

2010. urtean Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzak 25 irakurletza zituen martxan munduko beste horrenbeste unibertsitateetan. 2015eko maiatzean Etxepare Euskal Institutuak 34 irakurletza kudeatzen ditu European, Ipar eta Hego Ameriketean, eta Asian, beraz, %36ko igoera egon da irakurletza kopuruan lau urtean.

Etxepareren kudeaketako urte hauetan, 15 irakurletza zabaldu dira, azkenena, Tokiokoa, 2014/15ean martxan jarritakoa. Bestalde, arrazoi ezberdinak medio bertan behera geratu dira 6 irakurletza, unibertsitateekin, irakurle programekin eta aurrekontu faltarekin (azken 4 urteetan, krisialdi ekonomikoa medio, Etxepareren aurrekontua %25 jaitsi du Eusko Jaurlaritzak)⁷ zerikusia duten gora-beherengatik.

Ikasle kopuruaren bilakaerari dagokionean, 2010. urtean *Euskara eta Euskal Kultura* ikasten zuten mundu osoko unibertsitateetako 1.105 ikasleetatik, 2014. urteko kopurura, 1802etara, alegia, igoera nabarmena izan da, %63koa. Kopuru hauei, gainera, Etxeparek beste 5 unibertsitateetan dituen katedren datuak batu beharko litzaizkieke (2014ko datuen arabera, 41 ikaslek hartu zituzten programa hauetan eskolak).

2015eko ekainean argitaratu da datozen bi ikasturteetan Etxepare Institutuak beste bost irakurletza abian jarriko dituela.⁸ Beraz, 2016rako 39 unibertsitate izango lirake *Euskara eta Euskal Kultura* ikasteko aukera eskainiko dutenak mundu zabalean Etxepareren sarean. Hauek kontuan hartuko bagenitu, 2010etik 2016ra irakurletza kopuruan egongo den igoera %56koa izango litzateke.

3.2 Euskara eta Euskal Kulturaren lekua unibertsitateetan

Munduko 34 unibertsitate hauetan 27 irakurlek “*Euskara eta Euskal Kultura*” irakasten dutela diogunean, zertaz ari gara? Bada, bildutako informaziotik atera dudana ondorio nagusia da ikasgaiaren forma eta pisu akademikoa oso ezberdina dela unibertsitatearen eta herrialdearen arabera.

Ikasgaiak izan dezakeen curriculum mailako garrantziari erreparatuko diot lehenik. Kasu batzuetan, European batez ere, “*Euskara eta Euskal*

2010. urtean Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzak 25 irakurletza zituen martxan munduko beste horrenbeste unibertsitateetan. 2015eko maiatzean Etxepare Euskal Institutuak 34 irakurletza kudeatzen ditu European, Ipar eta Hego Ameriketean, eta Asian, beraz, %36ko igoera egon da irakurletza kopuruan lau urtean.

Ikasleek lortzen duten euskara maila oso oinarrizkoa izaten da, A1 mailatik beherakoa. Halere, hainbat salbuespen daude, zeintzuetan euskara ikasturte ezberdinetan hautatzeko aukera dagoen, eta beraz, ikasleek hizkuntza gaitasun txukuna lortzen duten A2, B1 edo altuagoa.

Kultura” (edo antzeko izenetako ikasgaiak) Hispaniar Filologia, Hizkuntzalaritza, Ikasketa Iberikoak, eta pareko graduetan aukeratu daitezkeen hautazko ikasgaiak dira, batez beste 6 kreditukoak ikasgai bakoitza, astean 2-4 klase ordu dituen.

Beste unibertsitate batzuetan, Hego Amerikako ia guztietan eta Europako batzuetan, edozein gradutatik aukeratu daitezkeen aukera askeko ikasgaiak izaten dira, astean 2-4 klase ordukoak, eta 4 kreditukoak batez beste kasu hauetan.

Kasu gutxi batzuetan unibertsitatez kanpoko jendeak ere burutu dezakeen ikasgai estrakurrikularra ere izaten da, zenbaitetan aukera askeko kredituak ere ematen ez dituen.

“*Euskara eta Euskal Kultura*” ikasgaien formari dagokionez, normalean irakurleak ikasgai bat baino gehiago eskaintzen ditu, lauhilabeteko iraupenekoak. Batzuetan “*Euskara eta euskal kultura I*” eta “*Euskara eta euskal kultura II*” moduan bereizten dira; beste batzuetan soilik “*Euskara*” ematen da; eta unibertsitate gehienetan alde batetik “*Euskara*” eta bestetik “*Kultura*” ematen dituzte.

Ikasleek lortzen duten euskara maila oso oinarrizkoa izaten da, A1 mailatik beherakoa. Halere, hainbat salbuespen daude, zeintzuetan euskara ikasturte ezberdinetan hautatzeko aukera dagoen, eta beraz, ikasleek hizkuntza gaitasun txukuna lortzen duten A2, B1 edo altuagoa. Adibidez, harrigarria da ikustea nola, Poloniako Poznaneko Etnohizkuntzalaritza eta Filologia graduetako hainbat ikasle, 4 urteetan zehar euskara hautazko ikasgai gisa jorratu ondoren, eta haien ezagutza sendotu eta praktikatzeko Zornotzako barnetegian egonaldia egin eta gero, EGA ateratzeraz ere iritsi diren.

Irakurleek, eskolak emateaz gain, euskal kulturaren nazioarteko enbaxadore izateko funtzioa ere badute haien unibertsitateetan eta hainbat ekitaldi antolatzen dituzte euskara eta euskal kultura sustatzeko.

Honek eragina du bai ikasleak erakartzeko, bai euskal kultura unibertsitate eta hiri horietan ikusgarri egiteko, eta baita euskal gaiei buruzko interes akademikoa pizteko ere. Parisko Sorbona IIIko irakurle Miren Ibarluzeak horixe aipatzen du:

“Eskolez harago antolatzen diren ekintza kulturalen eta sareen garrantzia nabarmendu nahi nuke. Jardunaldiak, hitzaldiak, errezitaldiak, kontzertuak... fun-

Alexander Aginagalde Lopez – Etxepare Institutuaren irakurletzak atzerriko unibertsitateetan. Euskararen kanpo zabalkundeari egiten dioten ekarpena eta hizkuntzaren nazioarteko irudian duten eragina

tsezko tresnak dira hor gaudela jakinarazteko. Horien bidez egiten da askotan gure eskolen berri-ematea; baina ez hori bakarrik: bestelako harremanak (akademikoak eta kulturalak) egiteko balio dute...”



3. IRUDIA. Leipzigeke (Alemania) Unibertsitateko Unai Lauzirika (beltzez) irakurlea ikasleekin, bertan Korrika egiteko prest. Iturria: www.etxepare.eus

3.3 Katedrak

Etxepare Euskal Institutuak nazioarteko bost katedra ditu abian eta guztietan euskal ikasketei buruzko programa akademikoak antolatzen ditu ikasturtero: *Bernado Atxaga katedra*, City University of New York; *Koldo Mitxelena katedra*, University of Chicago; *Eduardo Chillida katedra*, Johann Wolfgang Goethe Universität, Frankfurt; *Manuel Irujo katedra*, University of Liverpool; *Jon Bilbao katedra*, Nevada-Renoko Unibertsitatea (AEB), CBS.

Euskara eta euskal kulturako katedrak, euskal ikasketei buruzko irakaskuntza espezializatua (bereziki, gradu-ondoko mailakoa) eta euskal ikasketei buruzko ikerketa akademikoa sustatzeko tresna dira eta irakasle espezializatuek edo kultur sortzaileek unibertsitate batean egindako egonaldien bitartez gauzatzen dira.

Hauek euskara eta euskal kulturaren nazioarteko zabalpen eta prestigioan duten eragina ez dut lan honetan ikertuko. Halere, aipatu nahi dut Katedra hauetako programa akademikoetan 42 ikaslek hartu zutela parte iaz 2013/14 ikasturtean, eta 57 ikaslek jarraitu dituzte 2014/2015ean.

4. NAZIOARTEKO IKASLEEN MOTIBAZIO ETA IRITZIAK

Burututako elkarrizketa eta inkesten bitartez, ikerketaren helburu orokorrari begira, honako azpi-atal hauek azertu ditut: ikasleen euskara ikasten hasteko arrazoiak; euskara eta Euskal Herriari buruzko aurre ezagutza; zein helburu edo asmo dituzten etorkizunean euskararekiko; euskarari buruz duten iritzia; eta, irakurletzez egiten duten balorazioa.

Burututako elkarrizketa eta inkesten bitartez, ikerketaren helburu orokorrari begira, honako azpi-atal hauek aztertu ditut: ikasleen euskara ikasten hasteko arrazoiak; euskara eta Euskal Herriari buruzko aurre ezagutza; zein helburu edo asmo dituzten etorkizunean euskararekiko; euskarari buruz duten iritzia; eta, irakurletzez egiten duten balorazioa.

2015eko otsailean, Hego Amerikatik Zornotzako Barnetegira hilabeteko egonaldia egitera etorri ziren *Euskara eta Euskal Kulturako irakurletzako* 4 ikasle elkarrizketatu nituen.

4.1 Elkarrizketak

Ikasleen profilak:

- **1. ikaslea:** F.R.M., Pontificia Universidad Católica de Chile, Santiago, Zuzenbide ikaslea, gizonezkoa.
- **2. ikaslea:** A.N.R., Pontificia Universidad Católica de Chile, Santiago, Zientzia Biologiko ikaslea, gizonezkoa.
- **3. ikaslea:** A.A.Z., Universidad Nacional de La Plata, Argentina, Buenos Aires, Arkitektura ikaslea, emakumezkoa.
- **4. ikaslea:** P.M.S., Universidad de Chile, Santiago, Zuzenbide ikaslea, gizonezkoa.

Hauetako burututako elkarrizketan, honako iritzi eta ideia hauek jasotzen dituen, ikerketarako aipagarriak iruditzen zaizkidanak.⁹

a) Euskara ikasten hasteko arrazoiak:

1. *“Mi abuela, madre de papa, es originaria de Hernani. Quería siempre saber de dónde venía, cómo era su cultura, la lengua que hablaba, las tradiciones...”*
2. *“Me gustan mucho los idiomas y aparte me calzaba con el horario que había tomado...”*
3. *“Yo toda mi vida... —mi ama de Hernani, mi abuela también, mi abuelo de Rentería...— toda la vida Centro Vasco, euskal dantza, música vasca, tengo una relación muy fuerte con Euskal Herria (...) lo sentí necesario, me gusta mucho”*
4. *“...quería estudiar una lengua que no fuera inglés, sino que fuera una lengua indígena o hispana... y tome el curso de euskera por qué... la universidad lo daba en primer lugar y después porque había un curso gratuito en la Casa Vasca y entonces podía continuar estudiándolo. (...) y también un poco por mis ideas políticas...”*

b) Euskara eta euskal kulturari buruzko aurretiazko ezagutza:

1. *“Yo diría que tenía algún conocimiento, no bastante profundo...pero yo sí sabía dónde... en clase de Historia del Derecho... mi propia historia familiar... es decir localizaba geográfica...perfectamente bien por ejemplo*

también sabía algunas cosas sobre la gastronomía, cultura, ideología...mi abuela que a través de su concimiento..."

2. "Yo no sabía exactamente...sabía que existía el euskera sabía sobre él, el País Vasco, pero no precisamente donde se ubicaba...sabía que era uno de las idiomas que se hablaba en España..."

3. "Yo antes de empezar si sabía bastante, siempre tuve contacto..."

4. "Sabía un poco ...bastante poco...porque lo había estudiado digamos por interés personal cuando estaba en el colegio... pero no mucho porque yo soy disperso para estudiar esas cosas..."

c) Euskara eta euskal kultura zein helbururekin ikasten duten:

1. "...para mi formación académica (...) me podría servir en el futuro e... ya sea para utilizarlo cuando venga a España por placer o si quisiera hacer un postgrado en alguna universidad de aquí de Euskal Herria (...).yo diría que por las tres cosas, por interés personal, académico, y también por placer, por el gusto de aprender algo nuevo."

2. "...si quiero venir por placer o para hacer un posgrado aquí al País Vasco sería un plus..." "quizá que volviendo a Chile quiero seguir estudiando, y volver aquí a sacarme los perfiles el PL1, PL2..."

3. "Yo, finalidad...poder comunicarme, no mucho más que eso(...)igual acá si sigo estudiando ...algún día puedo sacar el PL1, igual no sé..."

4. "Yo, e...bueno yo estoy estudiando euskera por una cuestión de desarrollo personal,...a mí me parece importante conocer las distintas culturas dentro del ámbito yo lo llamare "hispanico"(...).esa es mi motivación... conocer más realidades conocer como es el otro y también entablar relaciones permite un desarrollo personal bastante grande desde mi punto de vista."

d) Euskara hizkuntza gisa nola definitzen duten, euskarari buruzko iritzia:

1. "...yo diría que comparativamente es más difícil que otras lenguas, pero para mí un idioma muy bonito al escucharlo...es un idioma también bastante lógico en su estructura gramatical..."

2. "Yo opino...no sé si será el idioma más difícil, pero es uno de los idiomas más difíciles ...porque hay que replantearse todo lo que uno sabe... no tiene una conexión a parte de las palabras que se han ido agregando del español, o sea, el castellano(...) el euskera si bien un idioma antiguo es un idioma que se adapta...va amoldándose a la situación a la que va el mundo...no es un idioma que se quede en el pasado..."

3. "Me parece un idioma difícil pero también tiene su lógica...hay algunas cosas que son más simples y una vez que te adaptas al modelo, lo que es..."

Ikasketei dagokionez, batek ere ez du Hizkuntza ala kulturari buruzko gradurik ikasten. Bik letretako graduak (Zuzenbidea) eta beste bik zientzietakoak (Biologia, Arkitektura) ikasten dituzte. Beraz, hizkuntzalaritzako ikasleetatik harago, euskararekiko interesa egon badagoela ikusi nuen.

**Euskara
hizkuntza oso
zaila edo zaila
iruditzen zaie,
baina**

**Laurek noizbait
Euskal Herrira
etorri eta
euskara
erabiltzeko
asmoa dute.**

**Euskal Herriari
edo euskarari
buruz zuten
iritzia aldatu die
ikastaroak kasu
batzuetan,**

se hace mucho más fácil...”

4. *“Bueno, yo... lo encuentro... no es que lo encuentre fácil... así como ¡qué fácil! no, pero por ejemplo yo estuve estudiando inglés y no me parece más difícil que eso... a mí me parece que es aprender un idioma como aprender cualquier otro...”*

e) Unibertsitate ikastaroaren aurretik eta ondoren euskarari buruz zuten iritzia aldatu den:

1. *“...Con respecto al pueblo vasco... si ha cambiado mi percepción... porque, o sea en un principio...lo que yo sabía del pueblo vasco era lo que me contaba mi abuela (...) que era bastante distinto a lo que se decía en los diarios y en la televisión (...) que no era un lugar seguro, pero me he dado cuenta de que eso en realidad no es así...”*

2. *“Bueno, yo partí de saber muy superficialmente lo que era... la cultura el idioma y eso...y ahora me he sumergido más en lo que es el idioma y me ha motivado para seguir estudiando...”*

3. *“Yo con el curso si me sirvió para saber la situación del euskera...”*

4. *“A mí, el curso en la universidad no cambio mucho mi percepción, me ayudo a profundizarla y harto, pase de saber muy poco a saber bastante...”*

Elkarrizketan egin nizkien galderei lau ikasle hegoamerikar hauek eman zizkidaten erantzunetatik, esanguratsuak izan daitezkeen datu hauek atera genitzake:

a) Jatorriari dagokionez, 4 ikasleetatik 2k jatorri euskalduna dute, beste bik ez

b) Ikasketei dagokionez, batek ere ez du Hizkuntza ala kulturari buruzko gradurik ikasten. Bik letretako graduak (Zuzenbidea) eta beste bik zientzietakoak (Biologia, Arkitektura) ikasten dituzte. Beraz, hizkuntzalaritzako ikasleetatik harago, euskararekiko interesa egon badagoela ikusi nuen.

d) Euskara ikasteko motibazioari dagokionez, arrazoi familiar, pertsonal, akademiko, zein politikoak zituzten euskara ikasteko. Beraz, nire aurreiritzien kontra, ikusi nuen Hego Amerikako euskara ikasle guztiak ez dutela zertan euskal jatorria dutelako ikasi.

e) Unibertsitateko ikastaroa amaituta, etorkizun hurbil batean, euren kabuz zein euskal etxeetan euskarari sakontzeko asmoa zuten laurek. Hizkuntza eskakizunen bat ateratzeko helburua ere adierazi zuten bik.

f) Euskara hizkuntza oso zaila edo zaila iruditzen zaie, baina ikasteko modukoa baita ere. Batentzat ingelesa baino errazagoa ere

bada. Hizkuntza logikoa dela era diote bik, eta egunerokotasuna duela, moldatu egiten dela, ez dela zaharkitua geratu, beste batek.

g) Laurek noizbait Euskal Herrira etorri eta euskara erabiltzeko asmoa dute.

h) Euskal Herriari edo euskarari buruz zuten iritzia aldatu die ikas-taroak kasu batzuetan, ezagutza sakondu baina iritzia gehiegi aldatu gabe beste batzuetan.



4. IRUDIA. Zornotzako barnetegian Otsailean ateratako argazkia. Elkarrizketaturiko 4 ikasleak (Pablo, Ainhoa, Alvaro, eta atzean erdian Felipe) goian ezkerrean barnetegiko arduraduna, eta ni.

4.2 Inkestak

Elkarrizketa hauen ondoren, ikasleen profil eta ideien lehen ikuspegi bat izanda, inkesta bat diseinatu nuen, internetez *Euskara eta Euskal Kultura* munduko unibertsitateetan ikasten ari diren ikasleen iritziak jasotzeko.

Irakurleei esker, munduko 31 unibertsitateetako ikasleei helarazi ahal izan diet hau. Ikerketa burutu dudanean, 2015eko otsaila eta ekaina bitartean, martxan zeuden 34 irakurletzetatik hirutan ez da inkestarik jaso.¹⁰

Aurtengo ikasturtean *Euskara eta Euskal Kultura* ikasten egon diren ikasleetatik, 214k bete dute galdetegi hau. Ikerketa idazteko momentuan (2015/06), ez dut 2014/15eko behin betiko ikasle kopururik ezagutu ahal izan, beraz, kontuan izanik 2013/14 ikasturtean 1802 ikasle aritu zirela munduko unibertsitate ezberdinetan ikasgai honetan matrikulatuta,


Elkarrizketa hauen ondoren, ikasleen profil eta ideien lehen ikuspegi bat izanda, inkesta bat diseinatu nuen, internetez Euskara eta Euskal Kultura munduko unibertsitateetan ikasten ari diren ikasleen iritziak jasotzeko.

Irakurleei esker, munduko 31 unibertsitateetako ikasleei helarazi ahal izan diet hau.

Adinari erreparatuz, hauen %75 18 eta 24 urte artean dago, hau da, unibertsitateko gradua ikasteko ohiko adinean. Halere, atentziora eman dit ia ikasleen %13 30 urtetik gorakoa izateak.

2015eko datuak antzekoak izango direla suposatuko bagenu (irakurletza kopurua bera baita), gutxi gora behera ikasleen %12k inkestari erantzun diola kalkula genezake.

Azter ditzagun, bada, inkestaren emaitzak.




SEXUA ETA ADINA

Lehenik, ikasleen sexuari dagokionez, inkestari erantzun dioten unibertsitarioren ia %62 emakumezkoak dira, eta %38 pasatxo gizonetzkoak. Unibertsitario emakumezko gehiago dago gaur egun mendebaldeko herrialdeetan, ikasketa teknikoetan salbu; beraz, kontuan izanik gero ikusiko dugun bezala gure ikasle gehienak letretakoak direla, datu honek ez du joera orokorrekiko ezberdintasunik adierazten.


Adinari erreparatuz, hauen %75 18 eta 24 urte artean dago, hau da, unibertsitateko gradua ikasteko ohiko adinean. Halere, atentziora eman dit ia ikasleen %13 30 urtetik gorakoa izateak.

JATORRIA



Erantzun duten ikasleen artean, Txiletarrak (%19), Estatubatuarrak (%11,5) eta Espainiarrak (%11) dira nagusi. Herrialde hauetan martxan dauden irakurletzak eta hauetan dauden matrikulazio datuak ikusita, bat dator gutxi gora behera kopuru hauekin. Txilen lau unibertsitateetan dago irakurletza (2014an 100 ikasletik gora zebilen hauetan matrikulatuta), Espainiar Estatuan beste lautan (55 ikasle 2014an (+ UNEDko 70)), eta EEBBetan hirutan (700 ikasletik gora 2014an, horietatik gehienak Boiseko gradu-ondokoan, 500etik gora).


Kontinenteka ikasleen jatorriari begiratuta, erantzun dutenen %55,8 europarra da (120), %23,4 hegoamerikarra (61), %11,2 iparramerikarra (24), eta %4,2 asiarra (9). Matrikulazio orokorreko datuekin alderatuta (2014koak), 837 ikasle europar (%46,4), 781 iparramerikar (%43,34), eta 184 ikasle hegoamerikar (%10,21) zeuden iaz, eta aurtengo datuak antzekoak izango direla pentsatuz (nahiz eta aurten Asia ere sartu Tokioko irakurletzarekin), ikus dezakegu ez datorrela guztiz bat erantzun duten ikasleen kopurua jatorriaren araberrako matrikulazio datuekin. Ezberdintasun nagusia honakoa da: proportzioan, Hego Amerikako ikasle askok erantzun dutela inkesta, eta Iparramerikar gutxiak.¹¹



1. IKASKETAK

Ikasleen ia erdia, %45,3 Filologia, Itzulpengintza edo antzeko ikasketak burutzen ari da. Beste %39,3 letretako beste ikasketa batzuk, eta %15,4 zientzietako ikasketak. Aipagarria da niretzako, hizkuntzen alorreko ikasketak burutzen ari direnak, orotara, erdia baino gutxiago direla, beraz, honek euskararekiko interesa hizkuntzalarietatik harago doala erakusten du.

Herrialdeka sailkatzen baditugu erantzunak, ikus dezakegu lehen aukera adierazi duten ikasle ia denak europarrak (eta japoniarrak) direla. Beraz, Hego eta Ipar Amerikan *Euskara eta Euskal kultura* ikasten duten ikasleek oro har beste ikasketa batzuk burutzen dituzte. Datu honekin erlazioa genezake hirugarren aukera, hau da, zientzietako ikasketak egiten ari direla adierazi duten ia guztiak (32) hegoamerikarrak edo iparramerikarrak direla ikustea. Guzti honek lotura zuzena du 3.3 atalean aipatu ditugunekin.



Madrid UNED	0	0%
Mexico DF UNAM	0	0%
Montevideo UDELAR	9	4.2%
Moscow LMSU	5	2.3%
Paris SP III	9	4.2%
Pau UPPA	4	1.9%
Poznan AMUP	3	1.4%
Santa Barbara UCSB	0	0%
Santiago de Chile PUCC	17	7.9%
Santiago de Chile UDCH	18	8.4%
Szeged SU	5	2.3%
Valparaiso UV	1	0.5%
Valparaiso PUCV	3	1.4%
Warsaw UW	5	2.3%
Venezia UCFV	4	1.9%
Tokyo TUFSS	9	4.2%
Otra/ Other/ D'autre	9	4.2%

Ikasleen ia erdia, %45,3 Filologia, Itzulpengintza edo antzeko ikasketak burutzen ari da. Beste %39,3 letretako beste ikasketa batzuk, eta %15,4 zientzietako ikasketak.

2. UNIBERTSITATEA

Unibertsitate bakoitzean egon den erantzun kopurua, horietan *Euskara eta Euskal Kultura* ikasgaien dagoen matrikulazio kopuruaren arabera izan da hein batean, baina kasu batzuetan ikasle gutxi egon arren ia denek bete dute inkesta. Honen azpian metodologia oharren eranskinean aipatuko ditudan faktore batzuk egon litezke eta baita klaseetako asistentzia maila edota irakurleak izan dezakeen gaitasun /eragina ikasleak inkesta erantzutera animatzeko orduan ere.




3. EUSKAL HERRIAN INOIZ IZAN DIREN

Ikasleen %61,2a ez da sekula egon Euskal Herrian. %38,8a, bai.

Datu hau herrialdearen arabera aztertuta, ikus dezakegu noizbait Euskal Herrian egon direla esan dutenen artean Europako ikasleak direla gehienak, baiezko erantzun guztietatik (83) %77a. Gertutasun geografikoa izan daiteke honen arrazoi nagusia, izan ere, Espainia eta Frantziako ikasle ia guztiek, eta Alemania eta Ingalaterrako erdiek noizbait Euskal Herrian egon direla adierazi baitute.

Ameriketako ikasle gutxi egon dira noizbait EHn. Salbuespena da Argentinako ikasleen kasua, non inkesta erantzun duten 10 ikasleetatik, 7 Euskal Herrian izandakoak diren. Erantzun hauek aztertu eta hurrengo galderarekin lotuta, topatu dudana izan da Argentinako 7 ikasle hauetatik 6 lotura familiarrengatik hasi zirela euskara ikasten, beraz, bertan egon daiteke salbuespen honen arrazoia.




4. IKASGAIAN MATRIKULATZEKO MOTIBAZIOA

Euskara eta Euskal Kultura ikasten hasteko motibazioen artean, nagusitzen den arrazoia Interes linguistikoa (26,6) da, bigarren tokian Interes soziokulturala (%25,2) eta hirugarren tokian Interes pertsonala (%22) ordena horretan. Ikasleen erdiak, beraz, %51,8k hizkuntza edo kulturarekin loturiko arrazoiak dituzte euskara ikasten hasteko. Interes pertsonala lehenetsi dutenak ere asko dira.

Lotura familiarra (%14), Ipar eta Hego Amerikako 20 ikaslek aipatzen dute eta Europako 10ek. Dakusagunez, arrazoi hau Ameriketako ikasleen artean zabalduagoa dago, nahiz eta arrazoi nagusiak besteak izaten jarraitzen duten ikasle hauen artean ere. Salbuespen bakarra, Argentinakoa da. Hemen bai, 10 ikasletik 8k lotura familiarra aipatzen dute *Euskara eta Euskal Kultura* ikasteko arrazoi nagusi gisa.

Euskal Herria bisitatu ondoren interesa piztu eta ikasten hasi zela adierazi du % 5,6k, emaitza hauek aztertuta ia denak europarrak direla ikusi dut. %6,5ek beste arrazoi batzuk aukeratu ditu.




5. EUSKARAREN AURRETIAZKO EZAGUTZA

Euskarari buruz ikasleek aurretik zuten ezagutzari dagokionean, ikasleen erdiak baino gehiagok dio (%61,2) zerbait zekiela, hizkuntza honi buruz %23,4k ez zekien ezer eta soilik %15,4k zuen ezagutza nahikoa unibertsitatean ikasgai hau aukeratu baino lehen.

Kontinente eta herrialdeka emaitza hauek aztertuta, ezer ez zekitenen erdiak pasatxo (28) amerikarrak dira eta beste bi japoniarrak, gainontzekoak (20) berriz, europarrak. Kontuan izanik (lehen galderan aztertu dugun bezala) ikerketa honetan jaso diren erantzunen %55,8 Europatik datozela, honek erakusten digu euskarari buruz ezer ez dakitenak batez ere Ipar eta Hegoamerikarrak direla. Asko zekitela dioten (33) ikasleen artean gehienak (20) Europarrak dira.

Euskarari buruzko ezagutzaren bat ikastaroaren aurretik bazutela adierazi dute gehienek (%76,6), zerbait (%61,2) eta nahikoa (%15,4) zekitenak batzen baditugu. Aukera hauek hautatu zituztenei ezagutza hori nondik jaso zuten galdetzean, gehienek senide eta lagunengandik (%33,5), edo ikasketetatik (%30,2) adierazi dute, hirugarren lekuan Internet bidez (%17,6) esan dutenak daude, eta azkenik komunikabideetatik (%7,1). Hemen %11,5ek besteren bat aukera hautatu du, zoritxarrez gehiago aztertu ezin dezakedana, inkestak hau zehazteko aukerarik ematen ez zuelako.

6. ¿Con qué objetivos estudia euskera? What are your goals when learning Basque? Quels objectifs vous avez pour étudier le basque?



Objetivos académicos, de investigación/ Academic objectives, for research/ Objectifs académiques, d'investigation	68	31.8%
Para hablarlo con mis familiares y amigos / To speak it with my relatives and friends / Pour le parler avec mes familiers et amis	24	11.2%
Para poder entender a los artistas, escritores...vascos / To understand Basque artists, writers... / Pour comprendre les artistes, écrivains... basques	22	10.3%
Para utilizarlo cuando viaje al País Vasco / To use it when I travel to the Basque Country / Pour l'utiliser quand je voyage au Pays Basque	53	24.8%
Other	47	22%


6. EUSKARA ZEIN HELBURUREKIN IKASTEN DUTEN

Euskara zertarako ikasten duten galdetuta, arrazoi nagusia %31,8rentzat helburu akademiko edo ikerketazkoak dira, eta bigarren motiboa %24,8 Euskal Herrira bidaiatzen dutenean erabiltzea. Hirugarrenik, lagun eta senideekin hitz egiteko ikasten du %11,2k, eta euskal sortzaileak ulertzeko %10,3k.

Hemen aipagarria da “beste helburu bat” adierazi dutenak, %22 direla, eta galdera honetan bai, lauki hutsa utzi nuenez beste arrazoiak idazteko, beste helburu hauek aipatu dituzte ikasleek:


- Batzuk aurreko bi helburu batera dituztela aipatu dute; akademikoak + lagun/senideekin hitz egitea; akademikoak + EHra etortzean erabiltzea; sortzaileak ulertzea + EHn erabiltzea.
- Hizkuntza bakarra/ezberdina edo kultura berezi bat ezagutzea dute helburutzat beste hainbatek.
- Jakin-mina, interes pertsonala, ikastearen plazera, edo garapen pertsonala beste batzuk.
- Identitateek modernitatean eta Europan nola biziraun dezaketen ezagutzea, edota mundua zabalagoa eta interesgarriagoa egitea ere aipatu dituzte.

Euskara zein helbururekin ikasten duten kontinente eta herrialdeka xehetasunez aztertuta, ikusi dut euskara ikastea europarrek duten lehen helburua akademikoa edo ikerketazkoa dela, iparramerikarrentzat bezala; hegoamerikarrek, berriz, duten helburu nagusia EHra etortzean erabiltzea da, eta baita japoniarrek ere.



7. EUSKARARI BURUZKO IRITZIA ALDATU DUTEN

Ikasleen %64k adierazi du ikastaroaren aurretik euskarari buruz zuten ustea edo iritzia aldatu egin dela *Euskara eta Euskal Kultura* unibertsitatean ikasi ondoren. Antzekoa da emaitza kontinenteka aztertuta ere.




8. EUSKARARI BURUZ NAZIOARTEKO IKASLEEK DUTEN IRUDIA

Ikasle gehienek euskara, elkarren aurkako adjektibo hauen artean, honako hauekin lotzen dute:

Ikasleen %64k adierazi du ikastaroaren aurretik euskarari buruz zuten ustea edo iritzia aldatu egin dela Euskara eta Euskal Kultura unibertsitatean ikasi ondoren.

- a) Zaila (%35,9) edo oso zaila (%22,4) da euskara= %58,3rentzat; tarteko zerbait (%33,2)rentzat; eta %7,5ak erraza (%7) edo oso erraza (%0,5) dela dio.
- b) Oso interesgarria (%65,5) edo interesgarria (%12,5) = %78 da gehiengo handi batentzat. Tartekoa (%4,7)k aukeratu du. Interes gutxikoa (%7,9)k. Interesik gabea (%10,3)k.
- d) Erabilgarria (%22) edo oso erabilgarria (%15) = %37 da gehiagorentzat ez oso erabilgarria (%18,2) edo batere erabilgarria ez (%4,7) baino=%22,9; gehienentzat tartean legoke (%40,2).
- e) Modernoa (%25,2) edo oso modernoa (%12,6)= %37,8 gehiagorentzat da, zaharkitua (%15) edo erabat zaharkitua (%2,7) =%17,8 baino; nahiz eta gehienentzat euskara tartean geratu, ez da ez hizkuntza modernoa eta ezta zaharkitua ere (%44,4)
- f) Oso positiboa (%60,7) edo positiboa (%20,6) = %81,3 gehiengo handi batentzat. Tartekoa (%7,9)k aukeratu du, negatiboa (%4,2)k eta oso negatiboa (%6,5)ek.

Beraz, laburbilduz esan genezake nazioarteko ikasleek euskarari buruz duten irudia oso positiboa dela, eta hizkuntza zaila, nahiko erabilgarria, oso interesgarria, eta nahiko modernoa iruditzen zaiela.



9. IKASGAIAREN BALORAZIOA


Ikasleen %70ek oso ongi (%49,1) edo ongi (%21) baloratzen du ikasgaiaren metodologia. %10,3k ez ongi ez gaizki baloratzen du, %10,7k gaizki eta %8,9k oso gaizki. Kontinente eta herrialdeka aztertuta ez dut alde handirik nabaritu.

Edukiak berriz, %74,3k baloratzen ditu oso ongi (%50,5) edo ongi (%23,8). %6,5ek ez ongi ez gaizki baloratzen ditu, gaizki %8,9k eta oso gaizki %10,3k. Kontinente eta herrialdeka aztertuta hemen ere ez dut ezberdintasunik ikusi.

Eta ikasleen Euskara eta Euskal Kulturako irakurlearekiko iritzia %75,7k oso ona (%65,4) edo ona (10,3%) du. %4,2k balekoa, %7,9k txarra eta %12,1ek oso txarra. Azken honetan ere ez dago desberdintasun nabarmenik kontinente edo herrialdeka aztertuta.

Beraz, orokorrean nazioarteko unibertsitarieok Euskara eta Euskal Kultura irakurletzari buruz duten iritzia oso ona da, bai edukiei, bai metodologiari, eta baita irakasleari dagokionean ere.

Ikasle gehienek euskara, elkarren aurkako adjektibo hauen artean, honako hauekin lotzen dute: Zaila (%35,9) edo oso zaila (%22,4) da euskara= %58,3rentzat. Oso interesgarria (%65,5) edo interesgarria (%12,5) = %78 da gehiengo handi batentzat.



10. ETORKIZUNERAKO ASMOAK

Ikasleen %96,7k euskararekin harremanetan jarraitzeko asmo ziurra du etorkizunean (%60,7) edo agian harremanetan jarraituko duela dio (%36). Soilik %3,3k ez du euskararekin harremanetan jarraitzeko intentziorik.

Harreman hori nola mantenduko duten galdetzean, aukera bat baino gehiagoko erantzun sistemarekin, honako erantzun hauek nagusitu dira:

Ikasleen %96,7k euskararekin harremanetan jarraitzeko asmo ziurra du etorkizunean (%60,7) edo agian harremanetan jarraituko duela dio (%36).

- %60,8k Euskal Herrira bidaiatuko duela dio.
- %51,3k Euskara eta Euskal kulturarekin Internet eta sare sozialen bidez mantenduko du erlazioa.
- %46,6k Euskara bere kabuz ikasiko du.

Aipagarriak dira gainontzeko aukeratako kopuruak ere:

- %23,8k senide eta lagunekin praktikatzeko asmoa du.
- %19k Euskal Etxe batean ikasten jarraituko duela dio.
- %16,9k gradu-ondoko ikasketetan Euskara eta Euskal kulturaren sakondu nahi du.
- Beste aukera bat hautatu dutenak %18,5 dira. Hemen ez nuen beste hori zer izan zitekeen aipatzeko aukerarik eman, beraz ezin dut sakonago aztertu aukera hau.



11. GOMENDATUKO ZENUKE?

Azkenik, ikasle ia guztiek diote euskara eta euskal kultura ikastea gomendatuko lieketela euren unibertsitateko ikaskideei: %96,3k. Soilik %3,7k dio ez lukeela gomendatuko. Erantzun hau kontinente eta herrialde guztietako ikasleen artean erabat nagusitzen da.

5. ONDORIOAK

Etxeparek kudeatzen duen irakurletzen mapa aztertu eta hauetan dabilzan ikasleen motibazio eta iritziak analizatuta, Euskararen kanpo zabalkundearen eta hizkuntzaren nazioarteko irudian irakurletza hauek eraginik dutela esan al dezakegu?

Euskara eta Euskal Kulturako irakurletzen mapa sakon aztertuta, ikusi dugu Etxepare Institutuak 2011n programa hau bere gain hartu zuenetik, irakurletza kopuruak %36ko igoera izan duela. 25 unibertsitateetan irakasten zen *Euskara eta Euskal Kultura* 2010ean, eta 2014/15 ikasturtean, berriz, mundu osoko 34 unibertsitateetan eskaintzen da: Europako 23, Hegoamerikako 6, Iparramerikako 4, eta Asiako 1ean. Gainera, 2016rako beste bost irakurletza irekitzeko asmoa iragarri berri du Institutuak, 39 uni-

bertsitatetara iritsiz, %56ko igoera suposatuko lukeena 2010etik 2016ra.

Ikasle kopuruaren bilakaerari erreparaturaz, 2010. urtean *Euskara eta Euskal Kultura* ikasten zuten 1.105 unibertsitariotik, 2014. urteko 1802etara, %63ko igoera egon da. Etxeparek euskal gaiei buruzko ikerketa eta gradu-ondoko formazioa sustatzeko dituen bost katedretako 57 ikasleak batu beharko litzaizkieke hauei.

Etxepareren sarearen bidez, Europako, Ameriketako eta Japoniako hainbat Unibertsitatetako Filologia, Hizkuntzalaritza, Ikasketa Iberiko eta antzeko graduatan aukeratu daitekeen hautazko ikasgaia da *Euskara eta Euskal Kultura*, eta munduko beste unibertsitate batzuetan ere hainbat gradutatik aukeratu daitekeen hautazko edo aukera askeko ikasgaia da.

Gainera, inkesten emaitzetan dakusagunez, ikasleen gehiengoak etorkizunean euskararekin harremanetan jarraitzeko asmo ziurra du (%60,7) edo agian harremanetan jarraituko duela dio (%36). Horietatik %17k gradu-ondoko ikasketetan Euskara eta Euskal Kulturaren sakonduz; %47k Euskara euren kabuz ikasiz; %60,8k Euskal Herrira bidaiatuz; %51,3k Euskara eta Euskal kulturarekin erlazioa mantenduz Internet eta sare sozialen bidez; eta %23,8k senide eta lagunekin praktikaturaz.

IRAKURLETZA HAUETAN EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA IKASTEN DABILTZAN IKASLEEN IDEIA ETA IRITZIAK AZTERTUZ, BERRIZ, ZERA ONDORIOZTA GENEZAKE:

Euskara eta Euskal Kultura ikasten hasteko motibazioari dagokionez, interes linguistiko (%26), soziokultural (%25), edo pertsonala (%22) nagusitzen dira. Hegoamerikarren artean pisua du baita ere lotura familiarra (%14) arrazoiak, nahiz eta beste arrazoiak nagusitu hauen artean ere.

Lau ikasletik batek (%23) ez zekien aurretik ezer euskarari buruz, baina gehienek zerbait bazekiten (%61), eta gutxi batzuk, berriz, asko zekitela diote (%15). Ikasleen gehiengoak ikastaroaren aurretik euskarari buruz zuen iritzia aldatu du (%64).

Euskarari buruz ikasleek orain duten irudia, berriz, oso positiboa da (%61), eta gehienei hizkuntza zaila (%36), nahiko erabilgarria (%41), oso interesgarria (%66), eta nahiko modernoa (%44) iruditzen zaie.

Euskara eta Euskal Kultura irakurletzak oso ongi baloratzen dituzte mundu osoko unibertsitarioek, hala edukiei (%70), nola metodologiari (%74), eta baita irakasleari (%76) dagokionean ere. Azkenik, atzerriko

Euskara eta Euskal Kulturako irakurletzen mapa sakon aztertuta, ikusi dugu Etxepare Institutuak 2011an programa hau bere gain hartu zuenetik, irakurletza kopuruak %36ko igoera izan duela. Ikasle kopuruaren bilakaerari erreparaturaz, 2010. urtean Euskara eta Euskal Kultura ikasten zuten 1.105 unibertsitariotik, 2014. urteko 1802etara, %63ko igoera egon da.

Euskara eta Euskal Kultura ikasten hasteko motibazioari dagokionez, interes linguistiko (%26), soziokultural (%25), edo pertsonala (%22) nagusitzen dira. Hegoamerikarren artean pisua du baita ere lotura familiarra (%14) arrazoiak.

unibertsitateetako *Euskara eta Euskal Kulturako* ikasle ia guztiek (%96) diote *Euskara eta Euskal Kultura* ikastea gomendatuko lieketela euren ikaskideei.

Munduko unibertsitateetako ikasleen iritzi hauetatik abiatuz, ausartegia litzateke zuzenean baieztatzea Etxepareren irakurletzek euskararen nazioarteko irudian eragina dutela; baina, hemen laburtu ditugun datuak ikusita, irakurletzek ikasle hauen euskararekiko irudian eragin positiboa izan badutela esango nuke. Eta ondorioz, ikasle hauek ere nazioarteko komunitate unibertsitarioaren parte direnez, maila akademikoan euskarari buruz nazioartean dagoen irudian Etxepareren Irakurletzek eragina izango dutela pentsa genezake.

Laburbilduz, atal honetan aipatu ditudan guztiak aintzat hartuta, esan nezake Etxepare Euskal Institutuak kudeatzen dituen Irakurletzek euskararen kanpo zabalkunde indartzen dutela eta hizkuntzaren nazioarteko irudia elikatu eta prestigioa ematen diotela; lehenik, geroz eta herrialde eta hiri gehiagotako goi mailako instituzio akademikoetan hizkuntza ikusgarri egin eta ezagutarazten dutelako; bigarrenik, ikasturte bakoitzean ia 2.000 ikasle aritzen direlako *Euskara eta Euskal Kultura* ikasten mundu zabaleko unibertsitateetan eta, horietako askok, etorkizunean euskarari / euskal kulturari buruz ikertzen jarraitzeko, euskara ikasten segitzeko edota hau erabiltzeko asmoa dute; hirugarrenik, ikasle gehienek euskarari buruzko irudi positiboa dutelako *Euskara eta Euskal Kultura* ikasi ostean; eta azkenik, irakurletzei buruz ikasleek egiten duten balorazioa bikaina delako, ia denek euren ikaskideei hau ikastea gomendatuko bailiekete.

1. ERANSKINA

TAULA: ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUAREN ARDURAPEKO IRAKURLETZAK

2014/15

EUROPA (23)	ALEMANIA	1* FREIE UNIVERSITÄT BERLIN
		2* Goethe Universität Frankfurt Am Main
		3* Universität Konstanz
		4* Universität Leipzig
	BRITANIA HANDIA	5* University of Birmingham
		6* The University of Liverpool
	ERRUSIA	7* Lomonosov Moscow State University
	ESPAINIAR ESTATUA	8* Universidad Complutense de Madrid
		9* Universidad Autónoma de Madrid
		10* Universidad Nacional de Educación a Distancia
		11* Universitat Autònoma de Barcelona
		12* Universitat de Barcelona
	FINLANDIA	13* University of Helsinki
	FRANTZIAR ESTATUA	14* Université Sorbonne Nouvelle Paris III
		15* Université de Pau et des Pays de l'Adour
		16* Fötvös Loránd University, Budapest
	HUNGARIA	17* Szeged University
	IRLANDA	18* University College Cork
	ITALIA	19* Università di Bologna
		20* Università Ca' Foscari Venezia
		21* Adam Mickiewicz University, Poznan
	POLONIA	22* University of Warsaw
	TXEKIA	23* Masarykova Univerzita Brno
ASIA (1)	JAPONIA	24* Tokyo University of Foreign Languages
IPAR AMERIKA (4)	EEBB	25* The University of Chicago
		26* University of California, Santa Barbara
		27* Boise State University
		28* Universidad Nacional Autónoma de México
HEGOAMERIKA(6)	ARGENTINA	29* Universidad Nacional de La Plata
	CHILE	30* Pontificia Universidad Católica de Chile, Santiago de Chile
		31* Universidad de Chile, Santiago de Chile
		32* Universidad de Valparaíso
		33* Pontificia Universidad Católica de Valparaíso
	URUGUAY	34* Universidad de la República de Uruguay, Montevideo

2. ERANSKINA

METODOLOGIARI BURUZKO OHARRAK

Ikerketak hainbat hutsune metodologiko eta muga tekniko ere izan ditu, eta hauek aipatu beharrean aurkitzen naiz.

Elkarrizketaren gidoian eta baita elkarrizketagile bezala izan nuen paperean, hobetu beharreko kontuak daudela ikusi nuen transkripzioa egiterakoan. Nire esperientzia faltari lotuko nizkiokeen hutsuneak dira biak. Hasteko, mahai-inguru gisa planteatu nuen elkarrizketa, lau ikasleen presentziarekin, eta bakoitzak banan-banan nik egiten nizkien galderei erantzuten zion arren, besteek erantzundakoarengatik influentzia jaso ahal izan zutela iruditu zait. Gainera, agian gehiegi utzi nien hitz egiten, eta erantzunean eragiteko beldurragatik esku hartu nahi izan ez nuenez, ez nituen gaira birbideratu, edota interesgarriak izan zitezkeen gauza batzuen inguruan sakondu zezatela eskatu. Hau dela eta, transkripzioan jasotako materialaren zati bat ez da ikerketarako oso erabilgarria izan.

Inkestekin izan ditudan muga tekniko objektiboak eta hutsuneak, ikerketari eragin diotenak, aipatu behar ditut. Inkesta abiatzeko datan, 2015eko martxoan, Etxepareren 34 irakurletza zeuden martxan beste hainbeste unibertsitatetan, eta 27 irakurle ari ziren horietan klaseak ematen (kontuan izan batzuk unibertsitate batean baino gehiagotan ematen dituztela eskolak). Muga tekniko ziur bat ikerketa burutu dudana data izan da. Apirilean unibertsitate gehienetan aste santuko oporrak izaten dituzte, eta hauen ondoren azterketak segituan datozenez, ez dute klaserik izaten fakultate batzuetan. Jakina denez, azterketa garaian ikasleei edozein borondatezko lan estra eskatzea, gehiegi da. Hego Amerikako unibertsitateetan, berriz, ikasturtea urte naturalarekin bat doa, martxotik abendura. Beraz, inkestak bidali nizkienean eskolak hasi berriak zituzten, euskarari buruzko iritziak emateko goizegi zelarik haientzat. Mota honetako beste ikerketa bat egitekotan, beraz, data hobe aukeratu beharko litzateke.

Beste muga tekniko bat email kate horretan inkesta betetzeko linkak eman dituen arazoak izan dira. Irakurle pare batek adierazi zidaten, ikasleek abisatu ondoren, nik bidalitako mezuko lotura ez zebilela zuzen, errorea ematen zuela. Hau berriz bidali eta arazo gehiagorik ez zidaten aipatu, baina litekeena da ikasle batzuk berriz inkesta erantzuten ez saiatu izana. Azkenik, irakurle batzuk aipatu didate inkestak soilik bigarren lauhileko ikasleei helarazi ahal izan dizkietela, lehen lauhilekoen helbide elektronikoak jadanik ez zituztelako.

Badira hainbat egoera konkretu ere ikerketaren hedapen zabalagoa mugatu dutenak. Arestian aipaturiko daten arazoa (oporrak, azterketak, kurtso amaiera...) eta zailtasun tekniko informatikoekin zerikusia duten motiboez gain, hainbat kasu berezi egon dira:

EEBBetako Boiseko Unibertsitatearen kasua da horietako bat: bertako Basque Studies Minor edo gradu-ondokoa da Etxeparek hitzarmenez babesten duena; ez dago “Euskara eta Euskal Kultura” ikasgaia, horri buruzkoa baita gradu-ondoko guztia. Euskara maila ezberdinak eta euskal kulturari loturiko hainbat irakasgai ematen dituzte hemen. Ikasle kopurua oso altua da gradu-ondoko honetan (585 ikasle 2014an), baina zuzenean Etxepareekin harremana duen irakurlearen klaseak jaso dituztenak aurtun, “Basque 1”, “Basque 2” eta “Basque Culture through cinema” ikasgaiak, alegia, 49 ikasle izan dira. Beraz, ikasgai hauetan matrikulaturikoei irakurle honek bidali zien inkesta, baina gradu-ondoko gainontzeko ikasleei fakultateko beste irakasleen bitartez helarazi zitzaizkien. Mezu elektronikoko katea luzeegia izan dela dirudi, proportzioan ikasle gutxi erantzun baitute galdetegia unibertsitate hartan.

Beste bat, Mexiko DFko UNAM unibertsitatekoa (honetan 2014an 55 ikasle zeuden matrikulaturik): hemen, unibertsitate eta irakurlearekin egondako hainbat arazo medio, irakurletza programa denbora baterako itxi zen 2014 amaieran, eta irakurle berria ez da 2015eko irailera arte lanean hasiko.

Azkenik, EEBBetako Santa Barbarako unibertsitateko irakurleak, ezin izan dizkie inkestak ikasleei helarazi, batetik lehen seihilabetekoan soilik ematen dituelako klaseak, eta bestetik, datuen babesarekin zerikusia duten arrazoi legalak tarteko, ikasleen emailak eskura ez dituelako. Aipagarria da unibertsitate hau dela bigarren ikasle kopuru handiena duena *Euskara eta Euskal Kulturaren* matrikulatua: 2014ean 131 ikasle ibili ziren. ●

OHARRAK

¹ *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana. ESEP* (Euskararen Aholku Batzordea, 2012ko uztaila)

² *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana. ESEP* (Euskararen Aholku Batzordea, 2012ko uztaila), 1.atala, 7.5.2.

³ *Euskararen Agenda Estrategikoa, 2013-2016 : bizikidetzarako hizkuntza bizia* (Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz, 2014), 3.13 atala

⁴ 3/2007 Legea, apirilaren 20koa, ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA / BASQUE INSTITUTE sortu eta arautzekoa, 1.art.

⁵ 3/2007 Legea, apirilaren 20koa, ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA / BASQUE INSTITUTE sortu eta arautzekoa, 3.art.

⁶. Ikus 2. eranskina: METODOLOGIARI BURUZKO OHARRAK

⁷. 5/2010 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2011. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena eta

5/2014 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2015. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena

⁸. http://www.berria.eus/paperekoa/5002443/028/004/2015-06-13/bost_irakurletza_sortuko_ditu_etxeparek.htm

⁹. Elkarriketen transkripzioa eskuragarri dago nahi duenarentzat.

¹⁰. Ikus 2. eranskina: METODOLOGIARI BURUZKO OHARRAK

¹¹. Ikus 2. eranskina: METODOLOGIARI BURUZKO OHARRAK

BIBLIOGRAFIA

Euskararen Aholku Batzordea ESEP (2012). *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.

Eusko Jaurlaritza (2014). *Euskararen Agenda Estrategikoa, 2013-2016: bizikidetzarako hizkuntza bizia*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.

Eusko Jaurlaritza, 2007. 3/2007 Legea, apirilaren 20koa, *Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute sortu eta arautzekoa*. Eusko Jaurlaritza.

Eusko Jaurlaritza, 2008. *88/2008 Dekretua, maiatzaren 13koa, *Etxepare Euskal Institutua / Basque Institutuaren antolakuntza- eta jarduera-Araudia onartzen duena*. Eusko Jaurlaritza.

Zarraga, A., Coyos, J.B., Hernández, Jone M., Joly, L., Larrea, I., Martínez, Loren V., Uranga, B., Bilbao, P. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Soziolinguistika Klusterra, Eusko Jaurlaritza (Kultura saila), Gasteiz.

Juaristi, P. (2003). *Gizarte Ikerketarako Teknikak. Teoria eta adibideak*. Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen zerbitzua, 2003).

Zinkunegi, K. (2010). "Diasporako euskararen egoera" *Euskonews* 507.

WEBORRIAK

www.euskonews.com

www.euskalkultura.com

www.etxepare.eus

www.berria.eus

www.basque.unr.edu

www.wikipedia.eus

www.euskomedia.org